

Soldata arrakalaren kontra, gutxieneko soldata propioa

Otsailak 22

Soldata Arrakalaren kontrako Nazioarteko Eguna

SOLDATA ARRAKALAREN KONTRA

gutxieneko soldata propioa

Contra la brecha salarial
salario mínimo propio

MARTXOAK 17 GREBA OROKORRA!

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

feminismoari
egin

Otsailak 22

Soldata Arrakalaren kontrako Nazioarteko Eguna

SOLDATA ARRAKALAREN KONTRA

gutxieneko soldata propioa

Azken boladan, behin eta berriro entzuten ari gara generoagatiko soldata arrakala gutxitzen ari dela. Instituzioek eta patronalek bidaltzen dituzten baikortasun mezu eta datuek, ordea, **errealitatearekin talka** egiten dute: Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren azpitik kokatzen diren sektoreei begiratuta, 1.500 euroren azpitik daudenak identifikatzean, sorpresa gutxi dago: sektore feminizatuak eta arrazializatuak dira gehienak; eta horietarik asko, esentzialak: eraikinetako eta eskoletako garbitzaileak, merkataritzako eta supermerkatuetako saltzaileak, telemarketinean aritzen direnak, etxeko langileak, ortuetakoak, Enplegu Zentro Berezieta... **Arrakala agerikoa eta ikusgarria da**, eta aipatutakoei gehitu behar zaizkie kontraturik gabe lan egiten dutenak, zaintza lanak doan egitera dedikatzen direnak eta abar.

Askok dira sistema heteropatriarkal kolonialaren mekanismoak errealitate hori horrela mantendu eta erreproduzitu dadin: balio bereko lanagatik emakumeek egiten dutenei soldata baxuagoak ezartzea, lan merkatuaren segregazioa, zaintza lanen debaluazioa eta pribatizazioa, korrespontsabilitatirik eza, zaintza kate globalak... Beraz, jardunaldi partzial inposatuak ere aztertu behar dira: gauza bat baita zenbateko soldatak dauden jasota hitzarmenetan, eta beste bat zenbat kobratzen duten jardunaldi partzialean daudenak.

- 1.500 baino gutxiago jasotzen duten langileen **%67 emakumeak** dira; hirutik bi.
- LGS azpitik dauden soldatapeko **emakumeen %47,97k** jardunaldi partzialean egiten dute lan.

Nola normalizatu dugu lan hauek (kasu askotan bizitzak sostengatzeko ezinbesteko lanak direnak) beste batzuek

baino balio gutxiago izatea? Noiz normalizatu dugu sektore feminizatuari beste enplegu maskulinizatu batzuei baino balio gutxiago ematea? LABen urteak daramatzagu esaten Confedebaskek agerian uzten duela negoziazio kolektiboan ze balio gutxi duten gure enpleguek. Soldata baxuagoak, baldintza eskasagoak, lanaldi altuagoak... Eta ez, soberan frogatu dugu ez dela gutxiago mobilizatzen garelako, gure mobilizazioen aurrean patronalak blokeoak mantentzen dituelako baizik.

Sexuaren arabera lan banaketaren bitartez betikotzen da arrakala hau; **lanak ezberdin baloratzen dira egiten dituenaren arabera**, emakumeek* edo gizonek (pertsona migratuek, gazteek...), eta hori lan baldintzetan islatzen da; soldatetan, hain zuzen ere. Sektore feminizatueta soldatak maskulinizatueta baino askoz baxuagoak dira, guk, emakumeek*, egiten ditugun lanei balioa kentzen zaielako. **Horregatik da hain garrantzitsua LGS propioa batene alde borrokatzea, gutxieneko bat bermatuko duena. Horregatik, martxoaren 17ko grebaren aldeko deialdia egiten dugu.**

Eta, noski, jakin badakigu neurri horrek beste neurri batzuekin lagunduta etorri behar duela, benetan apurtu nahi badugu sexuaren arabera lan banaketarekin, eta behingoz sistema ekonomiko esplotatzailea hankaz gora jarri: zor patriarkalaren eta kolonialaren aitortza, lanpostuen berbalorazio feministak, zaintza sistema publikoa... Enpleguaren aitortza ekonomikoa, soziala eta politikoa beren funtzio sozialagatik, ez merkatua metatzeko logikagatik.

Guk geuk izan nahi dugu borroka honen protagonista eta argi diogu gu geu izango garela sistema arrakalatuz borrokan jarraituko dugunak, inposatutako arrakalekin bukatu arte!

MARTXOAK 17 GREBA OROKORRA!

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA